



Amaia Dulce - Alazne Susilla  
Aixerrota BHI, 14-15

## Aurkibidea

Aitor Arana .....	2
Sarrera .....	3

## *Bosta ahizpa*

Kokapena .....	3
Gaia .....	4
Argumentua .....	4
Istoriaa .....	4
Pertsonaiak .....	7
Egituraketa .....	8
Baliabideak .....	8
Iritzia .....	10
Bibliografia eta Webgrafia .....	11

# Aitor Arana

Aitor Arana Luzuriaga 1963ko abenduaren 21an Legazpin (Gipuzkoa) jaio zen euskal idazle eta hizkuntzalaria da.

Unibertsitateko ikasketak egin eta hamazazpi urterekin idazten hasi zen. Lau urtez (1983 - 1987) euskara-irakaslea izan zen Legazpiko AEKn eta Udal Euskaltegian. Sei urtez Legazpiko HOTS kultur aldizkariko lankide izan, eta zenbait urtez arduraduna



izatea lortu zuen. Geroago, XUT literatur aldizkariko lankide izan, eta, berriro ere, arduraduna izatera ailegatu zen, eta Haranaga liburuak argitaletxeko zuzendaria baita ere.

Euskarazko, gaztelaniazko eta esperantozko itzultzailea da, eta liburuak idazteaz gain, hiztegi gintzan eta metodologian ere lan egiten du, eta Nafarroa Garaiko euskalkien eremuan egiten ari den lana da arlo honetan gehien ezagutzen zaiona. Liburua hau hogeitahiru urterekin argitaratu zuenetik, hirurogei liburu baino gehiago idatzi ditu. Gehienak haur- eta gazte-literaturaren arloan egin ditu, baina, baditu ere helduentzako eleberriak.

Txomin Agirre saria jaso zuen 2002an *Bost ahizpa* obrarekin.

# Sarrera

*Bost ahizpa* Aitor Aranak idatzitako polizi-eleberria da, 2005. urtean argitaratu zena lehen aldiz, eta orduz geroztik sei edizio izan dituena. Hasieran ez zuen arrakasta handirik izan, baina orain dela bi urte haren salmentak igo ziren nabarmen (bi urte baino gutxiagoan lau edizio argitaratu ziren).

Misterioz eta krimenez beteriko istorioa da. Bost ahizpa Aizpeberri izeneko Araban kokatuta dagoen herri galdu bateko landetxe batean elkartu dira, aitak (Areitioaurtena jauna) deituta. Aspalditik ez dute elkar ikusi aitaren eta haien arteko harremana zail samarra izan baitzen.

Liburua hirugarren pertsonan idatzita dago, narratzaile orojakile baten hitzekin. Narratzaile honek pertsonaiak, haien giroa eta pentsamenduak ezagutzen ditu. Horrek, irakurleari ikuspuntu zehatza eta argia edukitzen laguntzen dio.

# Kokapena

Lehen aipatu dugun moduan, Aizpeberri (Araba) izeneko herri batean gertatzen da. Herri hau mendietan baztertuta dagoen herri txiki-txikia da, Aizpeatik hurbil. Areitioaurtena jauna eta bere emaztea herri hartako biztanle bakarrak ziren, beste biztanleek, urteak joan ahala, Aizpeara jaitsiz joan zirelako.

Idazleak ez ditu datarik aipatzen, baina pertsonaien jokabideei esker, gaurkotrasuna duela susmatu dezakegu. Adibide gisa daukagu Agustinaren sexu-aldaketaren kasua, hori ezinezkoa izango litzatekeelako orain dela berogei urte gutxi gora-behera gertatzea.

Bestetik, narrazioa burutzeko, narratzaileak lehenaldia erabiltzen du, hau da, gertatuak diren ekintzak kontatzen ditu (elkarrizketetan izan ezik).

# Gaia

Ezustean aberats bihurtu den gizon batek bere bost alabei eskutitz bana idatzi die, mendian bakardadean dagoen landetxera joateko eskatuz.

# Argumentua

Elkarrekin ongi moldatzen ez diren bost ahizpa haien gurasoen etxe berrian elkartu dira aitaren oinordekotza jasotzeko asmoz. Asteburu bat eman behar dute etxe horretan eta astelehenerako bizirik irauten duen ahizpa bakarrak jasoko du herentzia. Asteburuan ahizpak hiltzen doaz, banan-banan.

# Istoria

Areitourtena jauna zenbait urteetan ikusi ez dituen bere bost alabei -Pilar, Ana, Agustina, Amaia eta Garbiñe- gutun bana idazten die bere landetxera joateko eta asteburu bat elkarrekin pasatzeko. Eskutitzan eskatzen duen gauza bakarra bakarrik joatea da, baina haietako bik ez dute bere agindua betetzen: Amaiak bere alaba Leirerekin joaten da, eta Anak bere maitale Mikelekin.

Etxean biltzen direnean, azken urteetan egin edo gertatu diren gauzetaz hitz egiten hasten dira bost ahizpek eta Leirek, aita agertu arte. Honek bere emaztearekin heltzen da eta gaixorik dagoela kontatzen die. Horregatik bere oinordetza alaba bakarrari utziko diola esaten die, eta alaba hori izango dela asteburua amaitzerakoan bizirik irauten duen bakarra. Orduan, bere poltsikotik pistola bat atera eta emazteari eta

bere buruari tiro bana egiten du. Ustekabez, etxezainarengana joaten dira, Anastasio izenekoa, baina honek kotxea hartu eta ihes egiten du.

Hau ikusitakoan, asteburua etxean igarotzea eta astelehenean Anastasio bueltatzerakoan berarekin hitz egitea eta gauzak argitzea erabakitzen dute. Baina gau horretan, etxeko sukaldariaren, Nati, hilotza aurkitzen dute sukaldean, eta ahizpek konturatzen dira haietako batek etxeko pertsona guztiak hil eta oinordetza eskuratzea nahi duela. Hemendik aurrera etxeko giroa hozten da inork ez duelako besteengan fidatzen. Anak egoera hau alde batera utzi nahian bere logelara igo eta Mikelekin egoten da. Gaua batera pasatzen dute eta goiza ailegatzerakoan Mikel sotanora joan eta bere eskutalekua eraikitzen du. Ahizpa guztiak eta Leire bazkaldu ostean, Pilar eta Ana biagoa egitera joaten dira haien logeletara. Ordu batzuk pasa eta gero, Pilar bere ahizpekin berriro elkartzen da, Anak, aldiz, lo dagoen bitartean norbaitek bere logelan sartu eta tiro egin ondoren hilda geratzen da hor bertan. Egongelan zeuden ahizpak gertakizun honetaz berri izatean, Pilar etxeko hiltzailea dela pentsatzen dute, nahiz eta honek behin eta berriz hori ukatu. Gau bertan Garbiñek komunera doala esaten die bere ahizpei, baina beldurra dela eta ez diote uzten bakarrik joatea. Azkenean tratu bat egin eta bakarrik doa. Baina komunera joan beharrean sotanora igo eta eta balkoitik botatzen da, bere buruaz beste eginez.

Hilketa honen ondorioz, Agustina, Leire eta Amaia lehen baino zurrago daude Pilar hiltzailea dela. Alabaina, hurrengo goizean Pilarren hilotza lurrean ikusita, guztiz beldurtuta etxearen engongelan giltzapetu egiten dira, etxean dagoen hiltzailea sahiestu nahian. Egoera hori laguntzen du hiru nesken harremanak estutzeko, eta Amaiak aprobeixatu egiten du momentu hori Leireri azaltzeko bere benetako ama Garbiñe zela, eta bortxaketa baten ondorioz jaio zela. Garbiñe ez zegoen prest haur bat edukitzeko eta horregatik bera geratu zen Leirerekin. Hau guztia kontatu bezain laster, norbaitek bi aldiz jotzen du egongelako atea oso bortitz. Hirurak beldurrez, leihotik atera eta Amaia autoan sartzen dira Aizperako elizara joateko helburuarekin. Baina, hiltzaileak Pilarren kotxeko giltzak hartu eta haien atzetik abiatzen da. Aizpeara ailegatzean Amaia kotxea ikusten du, eta elizara sartzen da. Hango gela batean ikusi eta tiroka

hasten da, zoritxarrez haietako tiro bat Amaiari eman eta hil egiten du. Agustina gertatu denaz konturatu baino lehen, hiltzailea besoetatik eta oinetatik lotzea eta gela batean sartzea lortzen du, eta hau egitean lasterka batean igotzen da Amaia zelan dagoen ikusteko, baina, zoritxarrez, Leirek eta Agustinak ezin dute ezer egin Amaiari bizia bueltatzeko.

Hurrengo egunean, aitaren landetxera bueltatzen dira ia Anastasio dagoen ikusteko. Ailegatzen direnean helikoptero bat dute zain eta handik Anastasio ateratzen da. Honek esaten die haien aitaren tratua izan zela bere alaba bati ematea, eta nahiz eta Agustina emakume bezala sentitu, gizon moduan jaio zen eta horregatik Areitourtena jaunaren oinordetza Anastasiorentzat izango da. Izan ere, Agustinak bere barnean gorde duen sekreturik handiena kontatzen du: Garbiñe bortxatu zuen gizona bere aita izan zen, horregatik etxetik ihes egin zuen Amaiarekin eta ez zuen izan nahi haur hori. Hori entzuterakoan, Anastasiok konturatzen da oinordekotza Leireri dagokiola.

Azkenean, Anastasiok Mikel izeneko multilari buruz galdetzen du, eta Agustina eta Leirek esaten diote etxean egondako hiltzailea Aizpeako elizan dagoela. Denok batera, Mikelengana joaten dira, eta han konturatzen dira Anastasio eta Mikel anaiak direla eta plan honen buru izan direla. Biek korrika ihes egiten dute, eta Agustina eta Leire diruarekin geratzen dira.

# Pertsonaiak

Obra honetan ez dago pertsonaia nagusirik baina Amaia eta Leire ama-alabak dira garrantzi handiena hartzen dutenak.

**Pilar.** Ahizpa zaharrena da Anarekin batera, bikiak baitira. Aitarekin hoberen konpondu zen ahizpa da. Etxean dagoen hiltzailea bera dela uste dute bere ahizpek Agustina eta Amaia. Harremanak izan zituen Mikelekin etxean (benetako hiltzailea).

**Ana.** Pilarren bikia. Bere maitalea Mikel landetxera ekarri zuena izan zen. Ahizpetatik hil zuten lehena izan zen.

**Agustina.** Erdiko ahizpa da. Mutil bezala jaio zen baina emakume sentitu txiki-txikitatik. Bere bilobarekin batera (Leire) bizirik iraun zuten bakarrak izan ziren.

**Amaia.** Leire hartu behar izan zuen bere alaba moduan, bere ahizpak (Garbiñe) ez zuelako izan nahi, bortzaketa baten ondorioz jaiotako haurra izan baitzen.

**Garbiñe.** Ahizpetatik gaztetxoena da, beldurtiena eta ahulena. Bere aitak bortxatu eta Leire jaio zen, eta hobeto konpontzen zen ahizpari (Amaia) eman zion.

**Leire.** Hamabost urteko neska. Garbiñeren alaba biologikoa da, baina berarentzat Amaia da bere ama. Amaia hiltzean, Agustinarekin geratzen da.

**Areitiourtena** jauna. Bere familiarekin harreman txarrak izan ditu betidanik. Emaztea oso txarto tratatzen zuen eta mozkortzean jipoitu egiten zuen. Bere alabekin ere oso txarto moldatzen zen, haietako bi bortxatu zituen.

**Anastasio** eta **Mikel.** Hilketaren plana montatu zuten anaiak dira. Anastasio aitaren abokatu moduan lan egin zuen eta Mikel etxeko hiltzailea zen.



# Egituraketa

Liburu honen egituraketa linela da. Hau da, gertaerak ordena kronologikoan kontatzen ditu. Gainera, liburua hamabi kapitulutuan banatzen da. Kapitulu bakoitza zenbaki batez adierazita dago izenbururik gabe. Kapitulu batean, pertsonaiak edo eszenatokia aldatu dela jakinarazteko hiru izartxo erabiltzen ditu.

# Baliabideak

Elkarrizketa eta deskribapen ugariz osatuta dago liburua, eta beraietan, irakurketa erreteaz eta atseginagoa egiteaz aparte, informazio asko ematen da bost ahizpen arteko erlazio buruz: trapu zahar asko ateratzen da euren artean; baina beti ere gertaeren harira, eta ez edozein momentutan.

Eleberri honek hainbat baliabide ditu. Narratzaileak baliabide hauek erabiltzen ditu irakurleari irakurketa errazagoa egiteko. Bi baliabide mota erabiltzen ditu: fonikoak eta semantikoak:

## BALIBIDE FONETIKOAK

**Onomataopeiak.** Hitzen bidez egindako naturako soinuen imitazioa.

“...baina txirri-txirri ari zuen euria, aski bizi.” 25

“Tok-tok, tok-tok! entzun zuen Anak, ... “ 48

“Plop-plop egin zuen pistolak, eusten zionak katua bi aldiz jarraian sakatu zuenean.” 146

“Danba! Danba!” 152

## BALIABIDE SEMANTIKOAK:

**Konparazioak.** Bi elementu konparatzen ditu.

“Hilerriko isiltasuna festa alaia da han sortu zen isiltasunaren ondoan” 53

“Ero moduan mugitzen zuen bere eskuargia, altzarietako kajoak etengabe irekiz eta itxiz.” 155

“Nor bait lurrera ziplo erortzean bezalako hotsa entzun zen orduan, zurezko zoruaren kontra jotzean.” 159

“Agustina eliz ganbarako zuraje artetik atera zen emeki, txoria harrapatzean dagoen katuaren antzera.” 163

**Pertsonifikazioak.** Bizigabeei giza nolakotasunak eranstea.

“Lorategia bera ez iluntzeko eta ez goibeltzeko moduan.” 29

“...euri-tantak lurrera erortzen ziren (...) zuhaitzei halako negar-malkoak isurtzen zituzten itxura emanez.” 29

**Metaforak.** Bi osagaien artean dagoen antzekotasuna adierazten zaigu, baina zeharka.

“—Ez niri adarrik jo, Agus!” 140

“Begiak itxi zituenean, iluntasuna eta bakea jabetu ziren bere izate osoaz.” 161

# Iritzia

Hasiera emateko iritzi honi, liburu berezia dela esan dezakegu, Inoiz ez baitugu liburu honen antzekorik irakurri. Gustatu zaigun arren, zati batzuk gogorrek izan dira irakurtzeko, gehienbat bortxaketei buruz hitz egitean.

Oso liburu aberatsa da; hainbat baliabide erabiltzen baititu. Baliabide hauek irakurleari hainbat sentimendu transmititzen laguntzen dute eta pertsonaienganako hurbiltasuna eragiten dute. Honen ondorioz, irakurleak askotan sentitzen du liburuaren barruko beste ahizpa bat dela eta istorioan sartuta dagoela. Guk hori sentitu dugu.

Lexikoa dela-eta, klasean landutako hitzegitxoari esker, ez dugu zailtasun handirik izan testua ulertzeko eta horri esker irakurketa erosoan izan da.

Gutziz gomendagarria dela uste dugu, hilketak hasten diren momentutik ezinezkoa da liburua irakurtzeari uztea. Atera dezakegun alde negatibo zera da, izen asko ageri direla, hasieran pixka bat korapilatsua iruditu dezake, baina ondo azalduta dagoenez ondo moldatu gara.

Alde batetik, ez da liburu astuna izan irakurtzeko, larbutxoa eta gure adinerako egokia baita. Bestalde, irakurtzeko erraza den idazkera atsegina eta argia darabil idazleak, egoerak eta gertaerak ondo esplikatuz. Eta gertatuko denaren jakinminak bultzatzen du irakurlea aurrera jarraitzera, amaieran korapilo osoa askatzen den arte.

Misteriozko eleberri bat irakurriz ondo pasatu nahi duen edonork badu hemen aukera ezin hobea, *Bost ahizpa* gustura irakurtzen baita, eta interesgarria da amaiera arte, hau da, oso liburu gomendagarria dela.

# Bibliografia

*Bost ahizpa*, Aitor Arana. Ibaizabal

*Elhuyar hiztegia*, Askoren artean. Elhuyar.

# Webgrafia

<http://www.galtzagorri.org/euskara/idazleak/aitor-arana-luzuriaga>

<http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/aitor-arana-luzuriaga>

<http://kritikak.armiarma.com/?p=858>

[http://ezkerraldea.blogspot.com.es/2011\\_05\\_01\\_archive.html](http://ezkerraldea.blogspot.com.es/2011_05_01_archive.html)

<http://www.erabili.com/lantresnak/hiztegiak/elhuyar>

<http://atalak.net/>